



Pil-pilean

TXARROA

Soraluzeko hilabetekaria
2024ko urria · 415 alea

ZENBAKI HONEKIN BATERA
HARIAN GEHIGARRIA

PRESEN AUZIA
ZULOAGA ETA
OLEA 2025EAN
BOTAKO DITUZTE



PIL-PILEAN 415

2024ko urria

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

4	Elkarrizketa Idurre Aranguren eta Nerea Altuna, EkoUdalatz	IRITZIA
6	Begira Aurora boreala Saturrararen	3 Neuretik Maite Larrañaga Orbea <i>Jubilatuak, ez erretiratuak</i>
8	Zer berri Aktualitateko albisteak	16 Gutunak Ruben Hernandez <i>Konponbiderik gabe</i>
14	Argazki bidez KontrargiAK erakusketa	16 Komiki tira
18	Erreportajea Presen auzia	17 Hausnarketa Gerrak
24	Kirola Soraluzetarrak Mintxeta Atletismo Taldean	17 Puntua Josune Aramendi <i>Bigarrenak</i>
26	Kultura Blues Hotsaren 11.a	
28	Sakonean Anita del Bosque gerrako umearen azken bidaia	
30	Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...	



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Jubilatuak, ez erretiratuak



MAITE LARRAÑAGA ORBEA

Erretiroa, erretreta, jubilazio, pentsiodunak...Hitz asko leku batera eramateko: adin batetik aurrera etxetik kanpo egindako lana utzi eta hortik aurrera denbora libre askoz gehiago daukagula garbi dago. Denbora hori betetzea bakoitzaren baitan dago, egoera pertsonalak, osasun arazoak, energia gehiago edo gutxiago, gogoak, gustuak eta abar, denak dauka zerikusirik gure denbora betetzeko.

Askotan zaintzak denbora asko hartzen digu gure inguruko pertsona nagusiagoak edo gaixagoak zaindu behar ditugulako. Bilobak eta lobekin ere disfrutzea gustatzen zaigu. Zaintzetan erabiltzen dugun denborak gure barneak maitasunez eta samurtasunez betetzen dizkigu. Kirola egitea gure osasun fisiko eta mentalerako ondo datorkigu eta horretarako kiroldegiko ikastaroak, espazioak, igerilekua oso erabiliak izaten dira, baina bizi garen ingurua ere aprobetxatzen dugu, oso mendi ederrez inguratutik gaudelako eta bidegorria ere, nahi dugun beste lauan ibiltzeko, gure esku dagoelako. Zeresanik ez bidaiez, Imsersokoak edo Itxaropenak antolatutakoak, lagunekin edo bikotearekin egindakoak. Bidaiek orduak ez, baizik eta, egunak eta asteak betetzen dizkigute.

Baina badago beste formatu bat interesgarria dena: ikastea. Ikastea plazer bat da ez dagoenean inolako derrigortasunik, ezta exigentziarik ere ez. Jubilazioa une aparta da horretarako. Pertsona bizialdi osoan ikasten jardutea oso aberatsa izan daiteke norberarendako eta jendarte osorako. Kulturak eta jakin-minak jendarte osoari aportatzen dizkio onurak. Inkulturak eta ezjakintasunak zaurgarritasuna, bazterketa, arrazismoa, misoginia eta matxismoa besterik ez dakarte. Honelako jarrerak gure jendarteari min besterik ez diote egiten.

Soraluzen JendartEkin proiektua bultzatzen ari dira udaletik, beste pertsona batzuen laguntzarekin, eta udazken honetan jarri da martxan, ezagutza, kultura, balioak eta gaurkotasuneko gaiak eskuratzeko eta transmititzeko. Proiektu horren helburuetako bat zenbait kezka kultural eta sozial dituzten pertsonak elkartzea da, jakintza eta jarduerak horiek ikasi edo transmititu ahal izan ditzaten. Bere lan etapan egin ezin izan zituzten jakintza eta jarduerak.

Ez da beharrezkoa alde aurreko ezagutzarik edo inolako titulaziorik izatea. Lortu nahi dena ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko da, jendartean eragin positiboa izateko eta, aldi berean, zahartze aktiboa sustatzeko. JendartEkin proiektuan denok izango gara beharrezkoak eta inor ez da izango ezinbestekoa.

Proiektu hau ikasteko eta dakiguna eta daukagun esperientzia aportatzeko demaseko aukera dela iruditzen zait, elkargune interesgarri bat nahi duenari irekita dagoena.

IKASTEA PLAZER BAT DA EZ DAGOENEAN INOLAKO DERRIGORTASUNIK, EZTA EXIJENTZIARIK ERE

“Sendabelar gehienek dute erabilpen bat baino gehiago”

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA ZANGITU

Sendabelarrak ezagutu eta prestatu izeneko tailerra eskainiko dute Idurre Aranguren (Arrasate, 1979) eta Nerea Altuna (Arrasate, 1978) Arrasateko EkoUdalatx mintegi ekologikoko adituek. 31 lagunek izena eman duela-eta, tailer bakarra barik, bi antolatu ditu Udalak, urriak 30-azaroak 6 eta azaroak 13-azaroak 27. Izen-ematea zabalik dago.

Zelako tailerra izango da?

Lehen egunean, herritik buelta bat emango dugu sendabelarrak identifikatzeko. Batu eta euren ezaugarriak eta kontserbazioa ezagutuko ditugu eta bigarren egunean, aterakinak egingo ditugu. Bi ibilbide prestatuko ditugu, datozen pertsona motaren arabera egokitzeko, izan daiteke kale ingurutik buelta eman eta hantxe batu edo mendi ingurutik. Leku guztietan daude sendabelarrak, ikusteko eta ikasteko lain nahikoa.

Zein aterakin egingo dituzue?

Beraketa azalduko dugu eta ukendua egingo dugu, momentuko sendabelarren araberakoa. Oraindik udako sendabelarrak daude eta negukoak ez dira asko atera. Sendabelarretan sasoiak dira uda-udazkena eta negu-udaberria.

Negu-udaberrian zeintzuk izaten dira?

Ardi-mingaina, xilarra, txikori belarra, eztul-belarra, birika-belarra, negakia, San Jose lorea, biolak...

Zuek nondik eskuratu duzue sendabelarrei buruzko jakintza?

Amandreengandik eta gertuko pertsonengandik. Horrez aparte, urtean behin formazioaren bat egiten saiatzen gara eta asko irakurtzen dugu.

Ze sendabelar erabiltzen da gehien?

Kamamila, asuna, berbena, balerianak eta halako lasaigarriak... Uste baino landare gehiago dira sendabelarrak.

Adibidez?

Perrexila, albaka, apioa... Adibidez, albakak laguntzen du gorputzeko inflamazioa gutxitzen.

Eta ezezagunenak zeintzuk dira?

Urriloa eta belaikia -mandragora eta belladona-.

Horiek sorginkerietan azaltzen dira...

Bai, horregatik aipatu ditugu. Guk urriloa ez dugu topatu, baina belaikia asko dago. Badirudi sorginkerietarako-edo direla bakarrik, baina ezaugarri mordoa dituzte. Hori bai, erabiltzen jakin egin behar da, gainera, akaso niretzat baliagarria dena, zuretzat ez da. Urriloaren kasuan, mina kentzeko erabiltzen da eta lo eragilea da.

Dosifikazioa jakin egin behar da, bestela toxikoa da. Belaikia asmarendako eta Parkinsonarendako da. Ez da gauza bera, ezta ere, 100 kiloko pertsona bati eman ala hiru urteko ume txiki bati.

Zer jakin behar da sendabelarrak erabiltzeko?

Sendabelar gehienek dute erabilpen bat baino gehiago. Landareak dira eta askotan ez diegu duten garrantzia ematen. Norberak bere gorputza zelan dagoen jakin behar du sendabelarrak erabiltzeko, zeintzuk diren norberaren beharrak. Ikusi dugu, adibidez, jendeak alergia asko dituela, baita sendabelarrei ere, beraz, kontuz ibili behar da. Zerbait hartzen hasi aurretik, testatu eta kantitate txikiekin hasi.

Eta zer hartu behar da kontuan sendabelarrak hartzeko?

Gehienbat non jaso eta landarearen zein zati hartu behar den. Ez da gauza bera sustraiak, hostoak edo loreak hartzea. Gauza horiek ikastaroan esplikatuko ditugu.

Sendabelarren erabilpena handia da, baina?

Jendeak jakin-mina badu eta gure mintegian, adibidez, landare aromatiko asko ikusten baditu, denetik hartzera animatzen da; baina gero, buruko-mina hasten denean, gauza azkarretara goaz. Sendabelar batzuk oso bizkorak dira, baina botikek baino denbora gehiago behar dute eragina egiteko, nahiz eta gero, hori bai, bigarren mailako efektu gutxiago izan. Jendeak azkartasuna gura du baina. Sendabelarrak hartzea osasungarriagoa da eta norberak kontrolatzen du zer dabilen hartzen. Sendabelarrekin zuk kudeatu ahal duzu zure osasuna eta prebentzio handia egin daiteke. Hori bai, askok ez dakite sendabelarrak erabiltzen eta ez dakite non galdetu ere. Horren arrazoi nagusia da medizina tradizionalan ez direla erabiltzen.



Aurora boreala Saturraranen

ARGAZKIA: GURUTZE ARIZNABARRETA ATXA

TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Gurutze Ariznabarreta Atxak zuen desio handienetako bat -Pil-pilean 407- urriaren 11n, 01:00ean bete zuen: aurora borealak erretratatzea. Eguzkiaren indarra ezohikoa izan zen eta horrexegatik, Debabarreneko kostaldean ere ikusi ahal izan ziren aurorak. My aurora forecast aplikazioan momenturik onena aukeratu eta Ondarbeltzen ibili ondoren, Saturraranera joatea erabaki zuen. Leku oso kuttuna du eta "ilusioa eta emozioa, bi sentimenduak nahasirik" joan zen, "inor ez zegoelako inguruan eta aurora borealari argazkia ateratzea posible izango zen jakin gabe". Azkenean joan zen eta... "a ze poza hartu nuen, desio handienetako bat zelako aurora borealaren argazki bat lortzea". Kamera tripodean tenkatu eta ondorengo parametroekin atera zuen argazkia: diafragma 4,5; abiadura 30 segundo eta ISO 2000. Norabidea ipar ekialdea.

Guru



FRANCIS LARRAÑAGAK SAN ANDRESKO BASERRIEN LIBURUA ARGITARATU DU

TESTUA EGOITZ UNAMUNO

Antzokia goraino betea zela aurkeztu zuen eguaztenean Francis Larrañagak (Soraluze, 1949) *San Andres baserriak - caserios* izeneko liburua. Bertan San Andres auzoko baserrien eta baserritarren gaineko datu historikoak jaso ditu, XIV. mendean hasi eta gaur egunera bitartekoak, baita han eta hemen bildutako argazki sorta ikusgarria ere.

28 Baserrietako datuak

Ezkontza kontratuak, testamentuak, jaiotza eta heriotza agiriak, pleituen gaineko eskriturak, udaletxeko aktak eta erroldak eta beste hainbat dokumentu aztertu ditu Larrañagak eta "eskribauek idatzitakoak" osatzeko, zuzeneko hainbat elkarrizketa ere egin ditu auzoko baserrietako hainbat bizilagunekin. Modu horretan osatu du 320 orrialdeko liburu mardula, San Andreako 28 baserrien eta bertako bizilagunen gaineko informazioa jasotzen duena.

Zaharrenak abizen iturri

Aurkezpenean azaldu zuenez, bere asmo nagusia abizenen eta baserrien arteko lotura aztertzea izan. Hala, Larrañagak dokumentuetan topatu dituen aipamenik zaharrenak XIV. eta XV. mendekoak dira eta haietan hamabi baserri ageri dira, "kasualki" denak leinuetxeak



Francis Larrañagak liburuaren nondik norakoak aurkeztu zituen Antzokian.

dira, abizena sortu dutenak:
Argarate, Arizaga,
Aseginolazazahar, Bagozgoitia,
Barrenetxea, Etxebarria,
Goenetxea, Iturriaga, Itsasoegi,
Izagirre, Urruzkarate eta
Zabaleta.

Larrañagak azaldu zuenez,
horieta abizen batzuk bizirik
daude eta beste batzuk
desagertu egin dira edo besterik
gabe herritik edo Euskal
Herritik urrundu egin dira.
Adibide moduan, Bagozkoitia
abizenaren kasua aipatu zuen.
"Bagozkoitia abizena gaur egun

Boskoitxi moduan ezagutzen dugun baserritik dator. Gaur egun ere erabiltzen da, baina Euskal Herritik urrun, Hego Ameriketako herrialde batzuetan. Interneten bilatuz gero, agertzen da".

Liburua salgai

Aurkezpenaren ostean,
liburua Iratxo goxodendan
erosi ahalko da edota
Gaztañerre azokan, 20 euroan.

Bestalde, Larrañagak jakinarazi duenez, etorkizunean, herriko beste hiru auzoetako baserrien historiak ere argitaratu asmo ditu eta dagoeneko hasita dago haien inguruko informazioa jasotzen. Hori dela eta, datozen hilabeteetan, Ezoi, Txurruka eta Irure auzoetako baserrietako bizilagunengana joko du informazio eske.

SAN ANDRESKO BASERRIEN AIPAMENIK ZAHARRENAK XIV. ETA XV. MENDEETAKOAK DIRA



Arizaga baserrikoa. FAMILIAK LAGATA



Iturriaga baserrikoa. FAMILIAK LAGATA



Urruzkarate baserrikoa. A. BOLUMBURU



Obeko bizilagunak baserri atarian. FAMILIAK LAGATAKOA



Ipiñarrieta baserriko bizilagunak. BASERRIEN LIBURUA

Oparo dator Gaztañerre azoka

AZAROAREN 9AN, 10:00ETARAKO GERTU IZANGO DITUZTE POSTU GUZTIAK

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA

Hasita dago Gaztañerre azokarako atzera kontaketa, 15 egun besterik ez dira falta aurtengo edizioarako, azaroaren 9rako. Iaz moduan, aurten ere izango dira zenbait berritasun.

Zazpi behi mota

Esaterako, azoka osatuko duten baserritarrei, aurten Untzetakoak batuko zaizkie. Berez, Bergarako terrenoak dira Untzetakoak, baina pozik onartu dituzte Soraluzeko azokarako. Animaliekin jaitsiko dira haiek, ahuntzekin eta behi terreñekin. Hartara, zazpi behi mota izango dira ikusgai Erregetxeko fondoko esparruan: Iraolabeitiako asturiarrak, Osumagaineko pirenaiak, Obeko eta Itxasoegiko limusinak, Aritzagako eta Barrenetxeako suitzarrak eta Iraolaetxebarriko hereford eta salers motakoak.

Hegaztiak, astoak...

Behiez aparte, animalien artean, Barrenetxeako astoak eta txerriak ere izango dira, Iriartegaineko boer ahuntzak eta suffolk ardiak, Legarda aldeko ardiak eta hegaztiak ere izango dira, Goenetxetxotik antzarak eramango baitituzte.

Barazkiak, gazta, zukuak...

Barazki ekoizleei dagokienez, berriz, antolatzaileek ahaleginak egin arren, azken urteotan moduan, bi baserritako



Baserritarrak, ganaduzaleak eta herritarrak Erregetxean, iazko Gaztañerre azokan.

produktuak izango dira bakarrik azokan: Lesarri eta Aritzaga baserrietakoak. "Oso gaitza da jende gehiago erakartzea, etxerako egin eta postua ipiniko duenik erakartzea", esplikatu dute Debemenetik. Edozelan ere, datozenek oparo atonduko dituzte postuak, urtero moduan.

Barazkigileekin batera, elikagai eskaintza osatzen, Elgoibarko Lizagasar sagartokikoen postua izango dute eta sagarrarekin egindako produktuak egin ere egingo dituzte jendeak ikusteko,

**ZAZPI BEHI MOTA,
ASTOAK, TXERRIAK,
ARDIAK, AHUNTZAK
ETA HEGAZTIAK IZANGO
DIRA IKUSGAI**

zukua, adibidez. Egotzatik ahuntz gazta eramango dute eta Soraluzeko eztigilerik ez dute lortu, baina bai Debako Nagore Dorronsoro, eta, Zortziko Eztiarekin izango da. Bestalde, San Andrestarrek aurten ere izango dute euren txosna, etxean egindako sagardo eta jakiekin (ondoko orrian xehetasunak).

Artisauak eta beste

Artisauai dagokienez, hor ere izango da mugimendurik, bi gehituko baitzaizkie urte luzez Gaztañerreko azokan egon ohi direnei: Maite Iñurrieta eta Susana Duran. Haiekin batera honakoak izango dira: Antxon Fresnedo, Andoni Gonzalez, Nuria Muro, Cristina Albisua, Txaro Fernandez, Julen Mendikute, Arrate Lizarralde, Eurne Garate, Lorea Calles, Amaia Amor eta Saadia Nasir.

Artisauek pitxiak, janztekoak, adornutarakoak, telak, osagarriak. narruz egindakoak, otarrak... denetariko eskaintza ipiniko dute postuetan.

Bestalde aurten ere, dotore jarriko du arotzeriako erremintak erakusteko postua Juan Kruz Arizaga *Kortak*. Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarateak ere izango du erakusleihoa Gaztañerren, eta, aurten, argitaratu berri den Francisco Javier Larrañaga Guridiren baserrien gaineko liburua erosteko aukera ere izango da.



Artisauek beteko dute azokako eskaintzaren zati esanguratsua.

Musika eta dantza

Azkenik, azoka musikaz eta dantzaz janzten ere herritarrak arduratuko dira. Mikel Ostolazak txalapartaren doinuekin zabalduko du azoka 10:00etan eta gero, nahi duenak

hura porbatzeko aukera izango du. Kalejira egingo dute, berriz, txistulariek zein trikitilariak eta baserritarren omenaldia ere izango da. 13:00etan, berriz, Urrats Dantza Taldekoek dantza-saioa egingo dute.

Aurten, bertsolaririk ez da izango azokan. Bai, ordean, azoka amaitutakoan baserritarrek Txurrukan egingo duten bazkarian. Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak jarriko diete giroa.

Jan-edan gozoa san andrestarren txosnan

Gaztañerre azokako protagonista nabarmenetako bat san andrestarrak izaten dira. Aurten ere badihardute dena prestatzen, diotenez, "azkenengo bilerekin" dabilta herriko jan-edana eskainiko duen txosnarako. Edanari dagokionez, besteak beste, zazpi sagardo desberdin edateko aukera eskainiko dute. Horrez aparte, sagardo-

txapelketa ere egingo dute, eta jatekoa ere izango da: sahieski errea, txorixo egosia, hirugiharrea, gaztainak eta salda. Txapelketari dagokionez, oraindik izena emateko aukera dagoela jakinarazi du Oier Cerrejon Barrenetxea baserrikoak -berarekin harremanetan jarrita-. Oraingoan, lehiaketan parte hartuko dutenak honako hauek dira:

San Martzial, Mendotz, Zabale, Bagozkoitia, Argarate, Osumagaita eta Barrenetxea. Cerrejonek esan duenez, "itxura oneko sagardoa" dutela iruditu zaie, "ea Gaztañerreko egunean zer esaten duen jendeak". Osterantzean, aurten hutsune handia sentituko dute, "Osumako Juani ez dugu izango gure artean txosnan eta falta handia sentituko dugu. Baina ahalegina egingo dugu dena aurrera ateratzeko", diote.

Eguzki-energia eskura

EGUZKI-ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRI NAGUSIENETAKO DA

Eguzki-energiak eta energia-iturri berriztagarriek funtsezko zeregina betetzen dute klima-aldaketaren aurkako borrokan eta energia-sistema iraunkorrako baterako trantsizioan. Eguzki-plakek, bereziki, bilakaera teknologiko nabarmena izan dute, eta efizienteagoak eta eskuragarriagoak bihurtu dira, bai etxerako, bai industriarako. Horri esker, pertsona eta erakunde askok murriztu egin dute sare elektriko tradizionaletikiko mendekotasuna, eta, hala, murriztu egin dituzte haien energia-kostuak eta karbono-aztarna.

Testuinguru horretan, gero eta ohikoagoak dira eguzki-energiaren funtzionamenduari, haren onurei, kostuei eta instalazioaren bideragarritasunari buruzko galderak. Hona horietako batzuek:

Zenbat energia sor dezake eguzki-plaken instalazio batek?

Energia-kantitatea sistemaren tamainaren, kokapenaren, panelen inklinazioaren eta instalazioak jasotzen duen eguzki-argi kantitatearen arabera da. 1 kW-ko eguzki-panel tipiko batek, Euskal Autonomia Erkidegoan 950 eta 1.400 kilowatt orduko (kWh) artean sor ditzake urtean, kokatuta dagoen eskualdearen arabera.



Plaka-fotovoltaikoak Itziariko Kanala jatetxean. DKT

Zer alde dago energia fotovoltaikoaren eta termikoaren artean?

Eguzkiaren energia baliatzeko sistema nagusiak bi dira: fotovoltaikoa eta termikoa. Lehenengo sistemak eguzki-plaken bitartez eguzkiaren energia fotovoltaikoa jasotzen du eta elektrizitate bihurtzen. Bigarren sistemak, berriz, urez beteta dauden hodi batzuen bitartez, eguzkiaren energia termikoa (beroa) jasotzen du eta energia horrek ura berotzen du eta kasu batzuetan lurruna

sortuz, turbina bat mugitu eta elektrizitatea sortu ere bai.

Eguzki-energia erabil daiteke gauean edo lainotuta dagoenean?

Eguzki-plakek eguzki-argi zuzena behar dute elektrizitatea sortzeko. Hala ere, energia biltegitratzeko sistemek, bateriek adibidez, egunean zehar sortutako elektrizitatea gaez edo egun lainotsuetan erabiltzeko biltegitratzea ahalbidetzen dute.

Zenbat denborako balio-bizitza dute eguzki-plakek?

Eguzki-plaken balio-bizitza 25 eta 30 urte bitartekoa da. Denbora horretan zehar, elektrizitatea sortzeko gaitasuna apur bat murriztu daiteke, baina modu eraginkorrean funtzionatzen jarraitu ohi dute.

EGUZKI-PLAKEN BALIO-BIZITZA ERAGINKORRA 25 ETA 30 URTE BITARTEKOA DA

"Energiaren %20a eskuratzen dugu eguzki-plaketatik"

ALBERTO SANCHEZ ETA MARIAN GARCIA KANALA JATETXEA

Duela bi hilabete, plaka-fotovoltaikoak ezarri dituzte Itziarko Kanala jatetxean. Guztira, 38 plaka ezarri dituzte, teilatuaren alde bietan.

Zein izan da arrazoia eguzki-plakak ezartzeko?

Jatetxean argindar asko kontsumitzen dugu, batez ere, labeetan eta garbiketa lerroan. Duela hilabete batzuk, Ukrainan gerra hasi ostean, faktura handiak iritsi zitzaizkigun, bai argindarrarenak eta baita gasarenak ere. Orduan, jarri ginen pentsatzen lehenago edo beranduago bilatu beharko genuela energia iturri berriztagarriren bat. Eta horretan geundela, iritsi zitzaigun proposamena Debegesaren bitartez. Hainbat sistema aztertu eta gero, aerotermia, geotermia eta abar, ikusi genuen eguzki-plakak inbertsioa ez zela horrenbestekoa eta gainera bazirela laguntzak Europako Next Generation programaren eskutik. Hori ikusita, erabaki genuen aurrera egitea.

Zenbatekoa izan da inbertsioa?

24.000 euro ingurukoa. Laguntzetatik, berriz, 5.000 euro inguru jasoko ditugu eta aurreikusten duguna da zazpi bat urtean inbertsioa amortizatuta izatea eta hamar urtetik aurrera irabaziren bat izatea. Izan ere, momentu batzuetan, argindar soberakina sortzen da eta soberakin hori argindar sare orokorrera saltzen dugu, gure kasuan, Iberdrolaren

bitartez. Hortik ere diru kopuru bat jasoko dugu baina hori oraindik ez dakigu zenbat izango den zehazki, prezioa negoziatu barik daukagu eta.

Nolakoa izan da prozesua?

Enpresa batekin jarri ginen harremanetan eta beraiek egin

Momentu honetan, 38 eguzki-plaka (15,64 kWp) eta haiei esker, jatetxean kontsumitzen dugun argindarraren %20a eskuratzen dugu. Sukaldeko kamarak eta elektrogailu gehienek plaketatik datorren indarrarekin funtzionatzen dute.



Alberto Sanchez eta Marian Garcia Kanala jatetxeko arduradunak. DKT

ziguten estudio guztia, kalkulatu zuten zenbateko aurrezpena lortuko genuen eta abar. Ondoren, instalazioa ere eurek egin dute. Adibidez, guk, kontsumo handia daukagunez ez dugu akumulatorerik eta halakorik ezarri behar izan, plakek sortzen duten guztia kontsumitzen dugulako.

Momentu honetan, zenbat indar eskuratzen duzue plaka-fotovoltaikoetatik?

"EGUZKI-PLAKEN INBERTSIOA EZ DA HORRENBESTEKOA ETA BADIRA LAGUNTZAK"

Zein balorazio egiten duzue?

Oso ona. Alderdi ekonomikoaz gain, guk nahi dugu kontsumitzen dugun energia berriztagarria izatea, ingurumenari ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko. Gustura gaude eman dugun pausoarekin.



**Energia
bulego birtuala**

energia.debegesa.eus
agenda2030@debegesa.eus
943 82 01 10.


Argazkilaritza landua

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: MIKEL VALERO ETA BITTOR MURGUZUR

Argazkilaritzako teknika desberdinak erabilia ateratako argazkiz osatuta dago Mikel Valerok eta Bittor Murguzurrek Araneko erakusketa aretoan ikusgai duten KontrargiAK erakusketa. Valerok makroa erabili du sorgin-orratzena moduko argazkietarako eta *color splash* teknika, berriz, Athletic-en ospakizunarena moduko argazkiendako. Murguzurrek, berriz, ohiko kameraz gainera, dronea ere erabili du erretratuetarako; eta argiarekin jolas egiten duten argazkietarako, berriz, *light painting* teknika. Adibidez, horrela dago aterata 8. argazkia. Marraskilo Tourrekoa da, 06:00etan abiatu ziren mendizaleen frontalek ibilbidea farolak bailiran argizatuta erakusten dute. Urriaren 31ra arte izango da ikusgai KontrargiAK.





h a r i a n

Indar kontutan parez pare





KARMELE GISASOLA HERRI KIROLARIA ETA XABI OSA ATLETA EGOKITUA

**Mallabiko Zelai landetxean
batu ditugu Karmele Gisasola
Zenikazelaia eta Xabi Osa
Mendes herri-kirolez eta
crossfitaz berba egiteko.
Ez zuten hasiera errazik
izan biek bietara ere, baina
biek ezagutu dute loria
nork berean, eta gaur
erreferente dira askorentzat.**

Testua: Ainara Argoitia

Argazkiak: Asier Orbea

Elkarrizketa osoaren bideoa
ikusgai eskualdeko tokiko
komunikabideen webguneetan

ARGITARATZAILEAK

ek!

Eibarko ...eta kitto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkt


Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

Euria ari du goian behean Mallabian, eta zelaitarrek etxe ondoan duten harritokian babestu gara solaserako. Metro koadro gutxiko espazioan dozenaka harri daude ertzetan pilatuta, eta hiruzpalau txaleko zintzilik. Lanerako tokia da. Bi leiho luzexke zelaira ematen dute, eta etxeko behiak ikus daitezke larrean, hausnarrean. Barruan bestelako hausnarra darabilte gure bi protagonistek, parez pare jarrita.

Emakumea izateagatik edo gorputz normatiboa ez izateagatik, ezberdinak zineten askoren begietara plazan agertu zinetenean. Nola oroitzen dituzue hasiera haiek?

Karme G.: Beti kontatzen dut aitak hogei urte egin zituela plazarik plaza eta ez zuela emakume batekin partekatu plazarik, urte askotan ehun erakustalditik gora egin zituen arren. Hori oso gogorra da. Esan beharra daukat Miren Urkiola hasita zegoela harri-jasotzen, baina entzuten ziren komentarioak ere ez ziren beti onak. Ezohiko zerbait zen emakume bat ikustea indar kontutan. Gure etxean, neba eta lehengusua hiruzpalau bat urterekin hasi ziren plazan aizkoran eta harri-jasotzen, baina nik 17 urterekin egin nuen saltoa, lehengusinarekin. Aitak animatu gintuen trontzan hastera. Ordura arte beti izan nintzen traketsa kirolerako; beti izan nituen behar baino kilo gehiago. Gimnasia beti nintzen azkena gelditzen zena eta urte askoan pentsatu nuen ez nuela kirolerako balio, harik eta gustukoa topatu nuen arte.

Xabi O.: Gustuko duguna topatu eta orduak sartu behar dira; eta ez nabarmentzeko, baizik eta erakusteko geure buruei gai garela eta lortu dezakegula nahi duguna. Begira, ni hondoa jota eta gauza oso negatiboetan pentsatzen nengoen ispilu aurrean jarri eta buruak klik egin zidanean. 'Edo aldatzen duzu zerbait edo batek daki zer gertatu daitekeen hemen', pentsatu nuen. Asko sufritu nuen umetan. Lotsa sentitzen nuen nire gorputzaz eta ez nuen nahi izaten kalera irteterik, ez neukalako besteen begiradei aurre egiteko gogorik. Irain asko egiten zizkidaten eta beti saiatzen nintzen besoa ezkutatzeko. Zorionez esan dezaket lagunek eta etxekoek asko lagundu nindutela. Lagunek sekula ez zidaten galdetu ea bizikletan ibili nintekeen. 'Xabi, goazen bizikletan ibiltzera', esaten zidaten, baina askotan komentario negatiboek eragin



handiagoa izaten dute. Egoera horretan neure bertsiorik onena zein izango zen imajinatzen hasi nintzen, eta Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeo arrazoia. Garai zailak izan ziren. Ohitura txarrak hartuta neuzkan. Jan ere edozer egiten nuen lokalera jaisten nintzenean, baina ispilu aurrean jarri nintzen gau hartan bertan entsalada afaldu nuen eta hurrengo egunean korrika egitera irten nintzen. Hor hasi zen aldaketa, eta kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeen arren, nire gorputza ez zela oztopo ezertarako. Gero, Ameriketako Estatu Batuetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen. Eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu. Erabaki nuen ez nintzela entrenatuko gorputz jakin bat izateko, baizik eta indartsu sentitzeko. Strongman egiten hasi nintzen [herri kirolen bertsio amerikarra] eta esango nuke hainbeste jende ezberdin ikusteak engantxatu egin ninduela.



"Xabi indartsu batekin amets egin nuen, fisikoa zelako besteek ni baztertzeko arrazoia"

"Kirolak erakutsi zidan gauza batzuk egiteko zailagoa izan nezakeela, baina nire gorputza ez zela oztopo ezertarako"

"AEBetara joan eta kirolarekin obsesionatzera ere iritsi nintzen, eta jabetu nintzen nire buruarekiko neukan ikuspuntua ez zela aldatu"

XABI OSA

Adinez zaharragoa izan arren, etxeko mutilak baino dezentez geroago hasi zinen plazan eta etxeokoez zerabilten ezizena hartu barik. Denontzat da desiragarri norbere izen-abizenez deitzea, baina zuenean Zelai goitzenak bazuen entzute bat. Kontzienteki baztertu zenuen?

K.G.: Ez. Lehen, euskaldunek normalean baserri izena hartzen zuten ezizentzat. Gurean, aitak, bi anaietan zaharrenak, Zelai hartu zuen; osabak, Zelai II.a; lehengusu loritzek Zelai III.a, eta gure nebak, Zelai IV.a. Akordatzan naiz Ermuko Santixau jaietan denok irten ginela plazara. Aurkeztu zituen esatariak gure etxeko gizonezkoak izen-abizenez eta Zelai ezizenez, gauza bera egin zuen gero Bihurri aita-semeekin, eta nire txanda iritsita, esan zuen: 'Eta Iparraldeko jokoetan, Karmele Gisasola'. Ni ez nintzen ohartu ere egin; hala zen. Bukatu zen erakustaldia eta etorri zitzaidan aurkezlea esanez pena hartu zuela etxeko guztiak Zelaitartzat aurkeztuta eta ni izen-abizenez. Lasai egoteko erantzun nion, ni jolasean ari nintzela-eta. Baina iritsi zen eguna nire nebak eta lehengusuak baino erakustaldi gehiago egiten nituela, txapelketa gehiago jokatzen nituela eta orduan esan nien etxeko mutilei aldatu egin behar genuela. Dena den, herri-kiroletan esango nuke ez dagoela ezizena duen beste emakumerik.

Nola hasi zineten crossfiten?

X.O.: Ameriketara ezagutu nuen crossfita, baina han oso garestia zen, eta Euskal Herrira itzuli eta gerora hasi nintzen. Hona etorri nintzenean strongman egiten jarraitu nuen hasieran, baina ez nuen topatzen leku aproposik strongeko ariketak egiteko crossfiten eman nuen izena.

K.G.: Akordatzan naiz Xabik [Osa] 2019an Anboto Crossfit zabaldu zuenean, ikusten nituela ikaskide izandako batzuk crossfitera joaten eta erabaki nuen izena ematea, harri-jasotzen aitarekin ibili arren, ez neukalako maisurik esateko sentadillak eta bestelakoak zelan egin behar ziren zuzen. Harria jasotzen ikusten dugunean norbait pentsatzen dugu indar handia izan behar duela derrigor, baina hemen dena ez da indarra. Da indarra, da teknika, da gure nortasuna eta da hauspoa. Harriak ere ezberdinak dira, eta harria jasotzeko moduak ere bai. Niri oso lagungarria egin zitzaidan crossfita, indarra egiteko. Jendeak uste du oso kaltegarria dela, baina gezurra da. Lesionatu izan banaiz, ez da

crossfitagatik izan; baizik eta, batzuetan, kontrakoagatik, ez joateagatik.

Harri-jasotzaileen etxean nola hartu zuten crossfiten izena ematea?

K.G.: Hasieran ez nion ezer esan aitari. Probatzera joan nintzen. Mugikortasun handirik ez neukan eta gaur baino hamar kilo gehiago nintzen. 'Nora ostia etorri naiz!', pentsatzen nuen. Uste dut box batera sartzen garen guztiok lehenengo sentitzen duguna lotsa dela. Izerditan hasten nintzen ezertan hasi orduko, baina probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan. Kezkatzen ninduen etxean nola esan. Izan ere, gure aitaren buruan sentadillak, pisu hilak eta karga hartzeak egitea zen entrenatzea, eta etxean bageneukan material guztia. Eta etxean entrenatzen ari ginen egun batean, aitak, harrituta moduan, bota zidan: 'Ene, indarra egin duzu!'. Orduantxe esan nion crossfiten hasi nintzela. Crossfita oso lagungarria izan zitzaidan bereziki pentatloia prestatzeko. Harri-jasotzen, gaur, ez dira sasoi bateko hamar minutuko txandak-eta egiten. Oso lan motzak izaten dira, baina pentatloian harri-jasotzen, txingetan, aizkoran eta korrika egin behar genuen eta lan luzeago baterako prestatzeko eta arnasa egiteko oso ondo etorri zitzaidan crossfit egitea.

Gorputz normatiboak, kanon estetikoak... Erakartzen du crossfitak gero eta jende gehiago, baina errezelo batzuk sortu ere bai beste askorengan.

X.O.: Gertatu zait herri-kiroletan eta baita crossfiten ere. Etorri izan zaizkit emakumeak boxera, eta esan: nik ez dut gorputz gihartsu horiek izaterik nahi.

K.G.: Akordatzen naiz gimnasioan halterofilia egiten ari ginen batean nola esan zenigun lasai egoteko, barra bat jasotzearen ez ginela koadratuak jarriko-eta. Astean bi aldiz joanda ezinezkoa zela hori, baina indar ariketak egitea oso lagungarria izango zitzaigula gure eguneroko lanetarako. Beste hori ere bada. Niri gustatzen zaizkit emakume gorputz gihartsuak ere, baina jende askori oraindik zatarrak iruditzen zaizkio. Eta ulertu dezaket jende bati ez gustatzea, baina ulertu dezatela haiek beste batzuei gustatzen zaizkigula eta gainera ez dela ezer txarra.

X.O.: Bai, jakina. Ohartu behar gara gorputzen inguruko komentarioek min egin dezaketela. Dena



den, komentario horiek askotan etxekeengandik etortzen dira, amengandik-eta, lehen ez zirelako halako emakume gorputzak ikusten. Iruditzen zait asko ari garela aurreratzen, gero eta neska gehiagok uste dutelako gorputz indartsua izatea osasungarria dela eta gainera erakargarri ere izan daitekeela. Crossfiten egiten ditugun ariketek eguneroko mugimenduetarako prestatzen dute gorputza. Sentadilla bat eseri eta altxatzea da bizitzan. Pisu hila jasotzea erosketa poltsak altxatzean egiten dugun mugimendua da, eta nik neuk behintzat hilkutxan sartzen nauten eguneraino nahi nuke erosketak jasotzeko gai izatea. Nire ustez crossfita izan behar da zerbait jendeari lagunduko diona. Ikusten dudana da, baina, jende asko gehiegi obsesionatzen dela.

K.G.: Esan eta esan ari zaizkigu, batez ere emakumeok indarra landu beharko genukeela menopausia aurreko urteetan. Egia da, baina, ni neu ere ez nagola ohituta 50 urteko emakumeak gimnasia joaten ikusten. Baina indarra landuta osasuntsuago eta hobeto sentituko gara eta ariketa fisikoa taldean egiteak buruko karga arintzen ere lagunduko digu. Akordatzen naiz beste entrenatzaile batek ere nola esan zidan behin ariketa eszentrikoak eta gomekin egiten ziren ariketak txorradak zirela, baina ez da egia. Gauza asko landu daitezke eta edozeinek egin ditzake ariketa horiek.



**"Nora ostia etorri naiz!",
pentsatzen nuen. Uste dut
box batera sartzen garen guztiok
lehenengo sentitzen duguna lotsa
dela. Izerditan hasten nintzen
ezertan hasi orduko, baina
probatu nuen eta asko gustatu
zitzaidan"**

**"Ulertu dezaket jende bati
ez gustatzea emakume gorputz
gihartsuak, baina ulertu dezatela
haiek beste batzuei gustatzen
zaizkigula eta gainera ez dela
ezer txarra"**

KARMELE GISASOLA

**Txapelketetan gero eta emakume gehiago
ikusten dira, batean zein bestean.**

X.O.: Bai, eta bai herri-kiroletan eta bai crossfiten ere nik gehiago gozatzen dut emakumeak ikusten pisua altxatzen gizonak ikusten baino. Iruditzen zait aukerak falta izan dituztela, baina aukera eman zaienean erakusten ari direla oso gai direla indar kirolak egiteko.

K.G.: Bai, niretzako oso polita da, urte luzez ikusi bakoa izan delako eta erakutsi dugulako ikuskizun politak eskain ditzakegula. Harri-jasotzen, emakumezkoetan, markarik handiena Idoia Etxeberriak dauka. Bi eskurekin 163 kiloko harria dauka altxatuta, eta esku bakararekin 118koa. 16 urterekin, Idoiak, 120 kiloko errektangularra jaso zuen. Iaz, Olaia Esnaolak, 16 urterekin, 125 kilokoa jaso zuen, eta aurten, Maddi Gosalagak berdindu egin du marka, baina 15 urterekin. Ni horrek izugarri poztzen nau.

Nola entrenatzen zarete?

K.G.: Gure aita, bere sasoiari, astean hiru bat aldiz Oizera igotzen zen etxetik hauspoa egitera, eta beste hiru bat aldiz Iruñeko gimnasio batera joaten zen urtariletik martxora, indarra egiteko. Lurrean amaitzen zuela esaten du. Gertatzen dena da guk herri-kiroletan ez daukagula egutegirik. Nik urtarilaren 1ean ez dut jakitzen zenbat txapelketa izango diren, gonbidatuko ote nauten, noiz izango diren eta ezer ez, eta beraz, ez dakit noiz egon behar naizen indarraldi betean denboraldian zehar. Eta denok dakigu ezin dela urte guztian egon sasoirik onenean.

X.O.: Horrek asko zailtzen du, bai. Kirolean, txapelketa asko izateak interferentziak sortzen ditu entrenamenduan. Niri lehiatzea ez zait asko gustatzen; gehiago gustatzen zait entrenatzea, nire buruaren kontra egitea... Urtean bi txapelketa jokatzeko ditut. Irailetik martxora arte karga lantzen dut, zure aitak egiten zuena. Astean sei egunez entrenatzen naiz, lauzpabost ordu egunean. Gogorra da, eta jakina, iristen da larunbata eta ez dut beste ezertarako gogorik izaten. Sakrifizio handia eskatzen du, bai gurea, kirolariona, eta baita ingurukoena ere, haiek ere ordaindu behar izaten dutelako, entrenatzen ez gauden denbora deskantsurako behar dugulako eta bete behar dugulako hori, ahal izanez gero jakina.

"Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago"

KARMELE GISASOLA



Niri gertatzen zaidana da kirolari profesionala izan arren lan egin behar dudala bizitzeko, hemen babeslerik ezean ez dagoelako dirurik.

K.G.: Bai, ni ere berdin; biok dauzkagu gure negozioak, gure kirolek ezin delako bizi. Udan oso txarto egon naiz ni gerritik; ez nekien zer zen. Fisioterapeutarenera joaten nintzen, ipintzen ninduen ondo, baina entrenatzen hasi eta negarrez amaitzen nuen, minez. Inori ez dizkiot opa udan pasatu ditudan minak. Askotan gelditu naiz plazan ere azkeneko harria jaso ezinda, minaren minez, negarrez. Erakustaldia amaitu domeka iluntzez, deitu osteopataria urgentziaz zaindu nazan, hasi berriro, eta ezin. Hala, banan-banan deitu behar izan nien antolatzaile guztiei udako bi hilabeteetarako lotuta neuzkan erakustaldi guztietarako ezetza eman eta ordezkioak topatzeko.

Eta halakoetan nondik ateratzen da entrenatzeko indarra?

K.G.: Hemen, harritokian, aita eta neu egoten gara bakarrik eta askotan motibazioa falta izaten zait entrenatzen hasteko. Eguraldi txarra egiten duenean, hilekoarekin nagoenean... dena txarra ikusten dudana egunetan oso gogorra egiten zait bakarrik aritzea. Baina talde baten izena ematen duzunean, burua behartuta sentitzen duzu joatera, aktibatzen zaituzte eta ingurukoek asko laguntzen dizute. Hori dauka crossfitak honek ez daukana, edo nik hemen ez daukadana, badirelako herri-kiroletan beste batzuk taldean entrenatzen direnak. Ni harritokian lehiatu egiten naiz eta ez nintzateke

kapaz beste lehiakide batekin batera entrenatzeko, joango nintzatekeelako nire onena ematera barik bera gaingitza. Ikasketa prozesu bat da hori ere, eta ikasi egin beharko nuke.

X.O.: Kirolari profesional bat naiz, mundu mailan lehiatzen dena, eta entrenatzaileak jartzen didan dena egin behar izaten dut Atik Zra.

Nola daramazue presioaren kontua?

X.O.: Txapelketetan hasi nintzenean irabaztea besterik ez neukan buruan eta ikaragarri zaintzen eta prestatzen nintzen, baina iristen zen eguna eta erlojuan atzera kontaketa hasten zenean blokeatu egiten nintzen. Antsietateak hartzen ninduen, ahoa sikatzen zitzaidan eta ezin izaten nintzen zentratu egin beharreko mugimenduetan. Eta horregatik hasi nintzen kirol psikologo batenera joaten. Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua. Esango nuke jokatu ditudan lehenengo bi munduko txapelketetara ezin prestatuago iritsi nintzela, baina buruak huts egin zidala.

K.G.: Bai, buruko osasuna oso garrantzitsua da. Ondo zaudenean, ez duzu premiarik sentitzen, baina uste dut denok joan beharko ginatekeela halakotara. Azkeneko lau urteetako Euskal Herriko txapelduna naiz ni harri-jasotzen, bosgarren txapela jokatu dut orain, eta irabazi egin nahi dut, baina lesio batetik



"Iruditzen zait kirolari askori gertatzen zaigula: asko lantzen dugu gorputza, baina oso gutxi burua"

XABI OSA

nator eta horixe ari naiz bereziki lantzen. Neure buruari esaten diot ahal dudan guztia egingo dudala, baina ez dela ezer pasatzen azkena geratuta ere, neurea egiten badut. Baina teoria oso polita da, eta praktika, berriz, kaka bat.

X.O.: Niri ere asko kostatu zitzaidan, baina ikasi nuen. Lehen, asko inporta zitzaidan kanpoko jendeak nitaz pentsatzen zuenak, gertukoei huts egingo ote nien..., baina konturatu naiz maite nauen jendeak berdin-berdin maiteko nauela, izan txapeldun edo azken. Iazko txapelketarako entrenatu nintzen, baina ez dut uste aurrekoetako sasoi berean nengoenik, lesio batetik ere banentorrelako, baina guk gurea egin genuen, hirugarren gelditu ginen eta pozik, guretzako jardun ginelako eta ez beste jende hori gustura geratu zedin. Uste dut gehiegizko presioa jartzen diogula kirolariok geure buruei.

K.G.: Hori da ulertu behar duguna: irabaztea ez dagoela beti gure esku, beste baldintza batzuk ere sartzen direlako jokoan. Besteak ere hor daude, gainera, eta norberak dena emanda ere izan daitezke gehiago. Eta zoriondu behar ditugu, lehiakiderik gabe txapelketarik ere ez legokeelako.

'Ginen'. Plurala erabili duzu, lehiatu bakarka lehiatu zinenean, Xabi.

X.O.: Jakina, bakarka arituta ere, kirolari guztien atzean dagoelako talde bat. Gure ahulguneak hobetzen

ematen dugu guk denbora asko, nahi eta ezin horretan, eta frustrazio handiak sortzen ditu horrek, ingurukoek ordaintzen dituztenak. Horregatik nire lorpenez ari naizenean beti pluralean hitz egiten dut.

Karmele, askotan galdetu izan didaten galdera bat egin nahi dizut: zer jaten duen kirolari profesional batek, askotan jendeak uste duelako nik letxuga, brokolia eta oilasko bularra bakarrik jaten ditudala.

K.G.: Gure aitak, entrenatzera Oiz mendira igotzen zenean, bueltan ez zuen urik edaten, txarto ikusia zegoelako. Pedro Langa zen orduan bere entrenatzailea, Deban bizi zena, eta astero txuleta-zinta bat ekartzen zion, egunean razioko txuleta bat jan zezan. Eta nire aitaren marka batzuk ez ditu inork gainditu. Hamasei aldiz izan zen Euskal Herriko txapelduna eta hor daude bere markak, baina nik ikasi dudana da denetik jan behar dela, baina neurrian. Arazo bat badaukat, baina: oso-oso gozozalea naizela; etxetik datorkit.

X.O.: Nik ere azukre pixka bat behar dut otorduro. Galdetu dizut nik janariarekin arazoak izan nituelako. Eta ezagutu dut jendea beste kirol batzuetan ere janariarekin oso harreman ona izan ez duena. Nik uste izan nuen barazkiak eta arraina jan behar nituela bakarrik, nire gorputzak kanon baten barruan egon behar zuelako. Nutrizionistak zabaldu zizkidan begiak.

K.G.: Oso garrantzitsua iruditzen zaidan zerbait da benetan profesionalak direnen kontsultetara joatea. Eta buruko osasunarekin, berdin.

GUTUNAK

Soraluzeko nire bizilagunei gutuna

RUBEN HERNANDEZ

Konponbiderik gabe hiru urte baino gehiago daramadan arazo bat ezagutarazi nahi dut. Herrian beren kasa abandonatutako katuei buruzkoa da. Auzokide batzuek jaten ematen diete, legez kanpokoak izan arren, baina ez da irtenbidea. Gaixo dauden katuak dira kanpoan daudenak, beharrezko txertorik gabe eta mota guztietako parasitoen arriskuan.

Udalari proposatu zitzaion haientzat gune bat prestatzea, kontrolatu, esterilizatu eta boluntarioek elikatu ahal izateko gune seguru bat izateko.

Udalak ez zuen erantzunik eman.

Horregatik, Gipuzkoako animalia eta landareen

babeslearekin harremanetan jarri ginen. Jakinarazi zigunez, udalak babesa eman eta kalean dauden animalia guztiak jaso behar ditu. Udalak hitzarmena izan behar du babesleren batekin, abandonatuta dauden animalia mota guztiak hartzeko baliabideekin.

Gure bizilagunen babesa eskatzen dut egoera triste hau presionatzeko eta konpontzeko, eta animalien elkarbizitza, animaliekin harreman hurbilagoa eta enpatikoagoa izateko.

Agur bero bat guztioi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Jaso duzu gerrako informaziorik? Tokatu zaizu gerrarik?

Espainiako gerrako umeen gaineko liburua argitaratu berri dute, *Orratz begia*



DAVID ORTEGA SAN MARTIN

"Umetan ikusi nuen errazioen kamioia herrira sartzen. Burgosko Beloradotik gertu jaiotakoa naiz. Etxean gutxi berba egiten zen, diktadurarekin... Han esaten zen, *¡menos Franco y más pan blanco!* Gazan pasatzen ari dena, berriz, masakrea da, sarraskia. Ezin da onartu".



ARACELI MAIZTEGI

"Tokatu ez. Aitari entzuten nion. Gure aitak esaten zuen, *nik ez, nik ez dut nahi gerrarik*. Baina norbaitek erantzuten zion: *betiko bakia kakia!* Nik, berriz, txarto ikusten dut oraingo egoera. Mundu guztian agintzen lau daude eta zoratuta daude".



ANA ISABEL URIBE

"Ez. Aitaita gazterik hil zen, 64 urterekin, ni umea nintzen, 11 urte nituen. Amak-eta, berriz, goserik ez zuten pasatu, baserrian beti egoten zelako zerbait. Hortaz, familian ez da horri buruz berbarik egin. Dena den, gerrak gaizki ikusten ditut".



JOSE MARI RUIZ

"Ez. Etxean ez zen horri buruz berba egiten. Aita errioxarra zen, ama ume nintzela hil zen. Gerrak txarto daude. Palestinakoa moduan, indiskriminatorioak badira, are okerrago. Herriarren kontra egiten da, lehengo gerretan moduan, agintariak babesean daudela".

PUNTUA



JOSUNE ARAMENDI

Bigarrenak

Lehenengo muxua, lehenengo bidaia, lehenengo zauria, lehenengo laguna, lehenengo irakaslea, lehenengo suspentsoa, lehenengo garaikurra, lehenengo kolpea, lehen hitza, lehen... Lehen aldiak iltzatuta geratzen omen dira pertsonon memorian, eta egia izan daiteke, ez diet merezimendurik kenduko. Hala ere, lehenengo dena delako horiei balio handiegia ematen zaiera iruditzen zait, zerbaitetan lehena gutxitan izan naizelako akaso. Txikitan makina bat aldiz geratu nintzen bigarren eskolako pala txapelketan edo bertso sariaketan. Gidabaimena bigarrenean ez, bosgarren aldian atera nuen. Bi gauza batera egiten abila izan arren, egunerokotasunean gauza asko bigarren aldian hobeto ateratzen zaizkit. Hitzen bigarren zentzua gustuko dut, baita bigarren platerak ere. Etxean bigarren alaba naiz, txikiena. Ni baino lau urte zaharragoa den ahizpak beti esaten du bere pertsona faboritoa naizela mundu osoan. Haurdun dago orain. Hortaz, susmoa daukat laster bere bigarren pertsona faboritoa izango naizela. Azkenaldian, gizartearen ordena eskumuturreko erloju inteligenteen kronometroak markatzen duela dirudi. Galdera "zer" izan beharrean "zenbatgarren" dela, alegia. Bitartean, bizitzak *-garren* hori atzizkia baino ez dela erakusten dihardu, ea bada ikasten dugun.





Olabarreneko presa aste honetan.

Udalak bide-orria adostu du Aldundiarekin

Udalak eta Aldundiak presekin jarraitu beharreko bide-orria adostu dute: 2025ean, Zuloaga eta Oleako presak botako dira Merlin egitasmoaren baitan, baina ez Igareta eta Olabarrena. Bi erakundeek proiektu "osoago" bat prestatuko dute eta haren arabera erabakiko dute bi horietan nola esku-hartu.

Testua: **Egoitz Unamuno**. Argazkiak: **Fernan Oregi**.

Urtea amaitu arteko epea zuen Udalak presen auzian erabaki bat hartu eta Merlin egitasmoari erantzuteko, eta aste honetan iritsi da erabakia, Aldundiarekin batera adostu duen bide-orriaren bidez. Haren arabera, datorren urtean, Merlin proiektuak Zuloagan eta Olean esku-hartuko du, lehena erabat kenduz eta bigarrena partzialki eraitsiz, aurreikusita zegoen moduan. Igareta eta Olabarrenaren kasuan berriz, Udalak eta Aldundiak erabaki dute bi presa horietan egin beharreko esku-hartzeak Merlin proiektutik "kanpo" lagatzea.

Lanketa "konplexuagoa eta zainduagoa"

Udalak helarazitako dokumentuan esplikatzen duenez, azken hilabeteetan Diputazioarekin "eskuz esku" jardun du aukera ezberdinak aztertzen eta zer egin adosterako orduan, ahalegindu dira "koherentziaz" jokatzeko, bai HAPOan (Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra) jasota dagoenarekin (Ikus testua eskumako zutabea) baita iazko udazkenean egin zen parte hartze prozesuan zehaztu ziren ondorioekin ere.

"Luze eta sakon" berba egin ostean, bi erakundeek ondorioztatu dute Olabarrena eta Igaretako presekin "ariketa konplexuago eta zainduagoa" egitea dagokiela eta uholde-arriskuaz eta iragazkortasunaz (permeabilitateaz) gain, beste faktore batzuk ere landu beharko lirakeela: "sortuko diren ibai-ertzetako biodibertsitatea, ondare materiala balioztatzekeo proiektua, ur-xaflaren eragina ibaiaren paisaian eta Udalak ibaia herritarrei gerturatzeko dituen proiektuak, SAPAn egindako eraldaketa, Plaza Zaharrean aurreikusitako harmailak eta Olabarrena inguruan planteatuko direnak".

Era berean, gogorarazi dute Soraluzeko HAPOa presen auzian zeresana duten erakundeen artean (Ura Agentzia, Aldundia eta Soraluzeko Udala) adostua dela eta bertan presen altuera jaisteko konpromisoa hartua dutela, Ura Agentziak uholde-arriskuari aurre egiteko beharrari erantzunez, horrela "ibai-ertzetan aurreikusitako garapen urbanistiko estrategikoak egingarri bihurtzeko", hala nola, SAPA eta Olaldeko eraldatzeko proiektu estrategikoak. Bide batez, Udalak iragarri du Olaldeko Plan Berezia garatzeko dirulaguntza garrantzitsu bat "nahiko aurreratuta" daukala Eusko Jaurlaritzarekin eta datozen asteetan emango duela informazio gehiago.

2025ean, Zuloaga eta Olea

Bi erakundeek jakinarazi dutenez, datozen hilabeteetan, "Diputazioko departamentu ezberdinak eta Soraluzeko Udala buru-belarri sartuko dira dinamika horretan". Ez dakite zenbat denbora beharko duten "ekintza sorta" definitzeko, baina ikusita Merlini lotutako proiektuek 2025eko udarako bukatuta egon behar dutela, argi izan dute "ez direla prozesu bateragarriak". Ondorioz, erabaki dute 2025ean, Merlin proiektuaren bidez, Zuloago eta Oleako presetan esku-hartzea eta Olabarrena eta Igaretako esku-hartzeak, berriz, Merlin proiektutik "kanpo" lagatzea.

HAPOak dioena:

"Tokiko ondarea aintzat hartu ahal izateko, udalaren ikuspegitik beharrezkotzat jo da honako helburu hauek ere planteatzea. udalaz gaindi babesteko elementuak katalogatzeaz gain (horien baren hartuta presuntzio arkeologikoko elementuaketa guneak): Deba ibaiaren izaera urbanoa babestea, hainbat elementu finkatuz, hala nola, Olea, Igareta eta Olabarrenako hiru presak, nahiz eta azken bi hauen altuera jaitsi egingo den, hiru helburu hauek erdiesteko: uholde-arriskua murriztea, faunaren igarobidea erraztea eta hiri-ingurune ur-xaflei eustea".

ITURRIA: SORALUZKO UDALA.



Unai Larreategi. F. OREGI

"Presena patxadaz pentsatu eta egin beharreko eraldaketa da, herriari ekarpen hobea egin diezaion"

UNAI LARREATEGI AZURMENDI ALKATEA

Parte-hartze prozesuaren ondorioetan nabarmentzen zen presak "kaltegarriak" direla ibaiarentzat baina Udalak ezetz esan dio Merlinen ibaia lehengoratzeko proposatutako proiektuaren zati garrantzitsu bati. Beste arrazoi batzuk lehenetsi dira ingurumenaren gainetik?

Esango nuke ez dela izan leheneste ariketa. Parte hartze prozesuan beste ondorio batzuk ere atera ziren eta guztiak kontuan hartuta heldu gara ondorio horretara. Aldundiarekin adostu dugun planteamenduan garbi diogu presak era batera edo bestera ukitu egin beharko direla, Plan Orokorrak (HAPO) hala jasotzen duelako. Horrez gain, bertan jasotzen da faunaren igarobidea erraztu egin behar

dela. Beraz, Merlinek proposatu duen gauza bera da eta Udalak hori laguntzeko disposizioa dauka. Hala ere, pentsatzen dugu Merlinen proiektuak dakarrenaz gain, badirela beste faktore batzuk hasieratik egon behar dutenak proiektuan, proiektu osoa izan dadin. Bestela, erraztuko da iragazkortasuna eta faunaren igarobidea baina ez dira aztertuko beste hainbat kontu. Esaterako, diogunean ibaiertz berri batzuk sortuko direla edo ondarea balorean jarri behar dela, gure ustez helburu horiek kontenplatuta egon behar dute proiektuaren barruan. Zer egin nahi dugu eremu horretan, ze erabilpen, ze biodibertsitate? Zehaztu dezagun. Ematen du debatea dela presak zenbat zentimetro bajatuko ditugun baina badira beste

hainbat elementu ibaiaren bizigarritasunean eragiten dutenak. Azter ditzagun. Adibidez, Plaza Zaharrean planteatzen diren harmailak, elementu berri eta garrantzitsua izango dira plazentziatarrok ibaiarekiko kontaktu zuzenago bat izateko.

Merlinen bitartez zetorren diru bat bueltatu egin beharko da?

Bai eta kontuan izan dugu erabakia hartzerako orduan, baina presena patxadaz eman beharreko eraldaketa da eta hori ez diogu guk bakarrik. Merlinek planteatu du Deba ibaian hamar presetan eskuhartzea baina hamar presa horiek botata ere, ibaia beste hainbat oztopo handi geldituko dira, adibidez, Elgoibarren eta Osintxun. Beraz, ibaia lehengoratzeko urtetako prozesua izango da eta testuinguru horretan, gure ustez, hobe da korrika ibiltzea baino denbora pixka bat hartzea proiektuak ekarpen hobea egin diezaion herriari. Aldundiak berak ere, helburuak 2030era begira ezarri ditu eta epe horretara ailegatu nahi du ahalik eta pausorik gehien emanda. Planteamendu horretan hobeto enkajatzeko du gureak. Hemen ez da ezer amaitzen, gure bi presak eta beste hainbat, berbetagai izango dira datozen urteetan. Guretzat jarraipen bat da lehendik datorren ibilbidean. Ibilbide hau Plan Orokorra onartu zenean hasi zen, gero etorri zen Merlin eta orain, beste fase batean sartu gara.

HAPOa hartu da planteamenduaren oinarritzat. Zergatik?

"PRESAK ERA BATERA EDO BESTERA UKITU EGIN BEHARKO DIRA HAPO-AN HALA JASOTZEN DELAKO"

Soraluzeko HAPOa, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2017an onartu zen udal-talde guztien, Aldundiaren eta Jaurlaritzaren oniritziarekin. Bertan jasotzen dira Soraluzek etorkizun bizigarriagoa izateko proiektuak eta jarraibideak eta berebiziko garrantzia du horiei kasu egiteak. Soraluze ibaiari lotutako herria da, bi ertzetan bizi da jendea eta beti izan dugu harremana ibaiarekin. Horregatik jaso ziren Plan Orokorrean ibaiarekin lotutako hiru aspektu: uholde-arriskua, ondare ikuspegia eta ingurumena. Horrek alde guztiak konprometitzen gaitu hiru faktore horiek kontuan izatera. Hor baldin badago oinarritzko adostasuna, uste dugu aurrera begira ere, hori dela oinarria.

HAPOa ez betetzeak zer lekarke?

Ura Agentziak eginak ditu estimazio batzuk uholde arriskuen inguruan eta ondorioz, aktuazio urbanistikoei begira zehazten dute non eta zer eraiki daitekeen. Adibidez, Ura agentziak baimena eman du SAPAn aterpea egiteko, nahiz eta euren zerrendan uholde-arriskua duen gunea izan. Zergatik? Ba, ez delako bizitzeko gunea bat eta irekia delako. Alegia, noizbait urak hartuko balu, ez luke kalterik eragingo. Ostera, bestelako erabilpen bat izango duten proiektuak garatzeko, Olaldean edo SAPAn bertan, exijentzia zorrotzagoa da eta bete ezean, Ura agentziak ez du baimenik emango.

Ostera, HAPOak ez du zehazten presen altuera zenbat jaitsiko den. Hori nola zehaztuko da?

HAPOak marko orokorra ezartzen du eta zehazten du hiru faktore zaindu behar direla: izaera urbanoa, permeabilitatea eta uholde-arriskua. Beraz,

etorkizunean hiru faktore horiek kontuan hartuta zehaztuko beharko da zer den optimoena. Adibidez, Ura Agentziak Gabolatsen eraikiko duen zubi berriak uholde-arriskua txikituko du eta hori ere kontuan izan beharko da.

Baina ur-xafla mantentzea eta faunaren igarobidea erraztea ez dira kontrajarriak?

Ez du zertan. Esaterako, Merlin proiektuak berak planteatu zuen Malmeron presak beheraino ez bajatzea eta erdian metro beteko altuerari eustea, arranpa bat eginez, igarobideaz gain, ur-xafla ere kontuan hartzen zuelako. Olabarrenan ere, hasieran hala planteatu zuten baina ondoren ez zuten posible ikusi arranpa egitea eta planteatu zuten beheraino jaitea. Orain hasiko dugun fase berrian, aukera denak mahai gainean izango ditugu eta hiru faktoreak kontuan izanda erabakiko da.

Irizpidea berbera izango da Olabarrenan eta Igaretan?

Nik esango nuke denok ere garbi daukagula zentralitatea erdiguneko presan dagoela, Igareta/Malmeronekoan. Parte hartze prozesuan ere garbi ikusi zen hori.

Zein da bermea Aldundiarekin adostu dena betetzeko?

Denok dugula interesa. Aldundiak nahi du datozen urteetan ibaiak

"GAI IZAN BEHARKO
GENUKE HILABETE
BATZUEN BURUAN
PROIEKTUA AURKEZTEKO"

"ALDUNDIAK 2023ERAKO
EZARRI DITU HELBURUAK
ETA GUREAK ONDO
ENKAJATZEN DU HOR"

iragazkor bihurtzea, ingurumen aldetik hobetzea eta ondarea zaintzea. Udalak ere bai. Gainera, Udalak ibaiarekiko harremana berreskuratzeko aktuzioak egin nahi ditu, adibidez, Plaza Zaharreko harmailak edota garapen urbanistikoa Olaldean, proiektu horiek zerikusi zuzena dute presekina.

Zein dira epeak?

Agintaldi honetan erabaki beharko genuke presekina zer egin nahi dugun. Hilabete batzuen buruan, gai izan beharko genuke proiektua zehaztu eta herritarrei aurkezteko.

Zuloagako eta Olako presak noiz botako dira?

2025ean.

Osorik?

Zuloagakoa bai. Olakoan, aurreikusten da parte bat bakarrik botatzea.

Oleakoa ere babestutako beharreko elementutzat jotzen du HAPOk baina hala ere partzialki eraistea onartu da. Zergatik?

Parte hartze prozesuan adierazi genuen moduan, HAPOak ibai parke bat egiteko moduko lekutzat izendatzen du Oleako presaren ingurua baina HAPOa onartu ostean, Udalak baloratu zuen Liñazibar leku egokiagoa zela eta ondorioz, Udalak han egokitu zuen parkea.

GDik 600 sinadura aurkeztu zituen erreferenduma eskatuz. Udalak zer iritzi du horren inguruan?

Udalak ez du esan herritarrei galdetuko ez dienik, beste gauza bat da zer eta nola galdetu eta hor, ikuspegi diferenteak ditugu. Aurrera begira, gu beti egongo gara prest parte hartze modu ezberdinen bitartez herritarren iritzia jasotzeko, modu horietako bat da galdeketa egitea eta aukeretan hor egongo da.

"Irtenbidea Ondare Sailarekin batera hartu da"

FELIPE ALVAREZ ALDUNDIKO OBRA HIDAUΛIKOEN ZERBITZUBURUA

Zer balorazio egiten duzue erabakiaz?

Prozesu honetan zehar Udalaren eskutik joan gara, beraz informazio trukaketa arina eta aberasgarria izan da, baina beti udal autonomia kontuan hartuta. Ibaiak lehengoratzeko bidean aurrera egitea ahalbidetzen duen irtenbidea da, eta, aldi berean, hausnarketarako denbora ematen du etorkizuneko jarduketei ekin aurretik. Presen inguruan ikuspegi asko eta anitz daude eta erabakia adostua izatea ez da erraza izan.

Botako diren bi presak, Zuloaga eta Olea, noiz botako dira? Osorik ala partzialki?

Horrelako obrak ur-emari txikiekin egin behar dira, beraz,



gure asmoa datorren urteko uztaila eta urria bitartean jardutea izango litzateke. Hala ere, lan-administratibo handia dago aurretik, eta epeak luza litezke. Kasu horretan, 2026ko udara atzeratu beharko litzateke. Zuloaga ez da benetan presa bat, ibaia zeharkatzen duen hodi bat baizik. Kondukzio hori jada ez dabilenez, erabat eraitsiko da. Oleari dagokionez, presa erdia

botatzea aurreikusten, hain zuzen ere, Deba ibaiaren eskuin ertzaren ondoko zatia. Irtenbidea, Ondare Sailarekin batera hartu da. Ibaiaren lehengoratzeko ez da guztiz lortuko, eta ondarekoak, zati bat botatzearekin amore eman dute.

Botako ez diren presa biak Aldundiak Gipuzkoako ibaiak lehengoratzeko duen planean sartuko dira?

Aldundiaren planean jarraituko dute, Merlinetik kanpo bada ere. Aurrekontuak eta lehentasunak direla eta, zaila da zehaztea zein epetan ekin ahal izango zaien jarduera horiei, baina kontuan izan behar dugu aurtengo ekainean Europako Kontseiluak Natura Lehengoratzeari buruzko Erregelamendua onartu duela hemendik 2030era, eta haren helburuen artean EBn 25.000 km ibai berreskuratzea dagoela.

"Erabakia norabide egokian doa"

ARTURO ELOSEGI MERLIN EGITASMOA (EHU)

Merlin proiektua kudeatzen duen taldeari zer iruditu zaio Udalak eta Aldundiak adostu duten bidea?

Erabakia norabide egokian doa. Orain urtebete hartu izan balitz hobea litzateke proiektuarentzat, baina erabaki honek behintzat denbora luzeegian trabatuta izan dugun egoera askatzen laguntzen du.

Erabakiak zer eragin izango du Merlinen proiektuan?



Honi esker, MERLIN proiektuan aurreikusita zeuden lanak neurri handiagoan burutu ahal izango dira. Guztira 10 presa

eraitsi nahi ziren, jada 4 daude eraitsita, eta datorren urterako espero dugu guztira beste 4 eraitsi ahal izatea, haien artean Soraluzeko bi hauek.

Botako diren bi presak, Zuloaga eta Olea, noiz botako dira? Eta osorik ala partzialki?

Aldundia da presak eraitsiko dituen eta, beraz, beraiena da ardura eta erabakia, baina MERLINen asmoak hasieratik izan dira Zuloagako presa osorik kentzea eta Oleakoaren eskuin erdia eraistea. Ezker erdia bertan geratuko da, ondarearen lekuko.

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK


ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Luzeak baino, lasterketa motz eta biziak nahiago

JONE ZUBIAURRE, NEREA ARRIAGA ETA LIDE SUDUPE
MINTXETA ATLETISMO TALDEKO KIDEAK



TESTUA: ANDER GOMEZ

Bost plazentziatar dabilta Elgoibarko Mintxeta Atletismo Taldean. Horietatik bi, Naia Rodriguez Alonso (2010) eta Irati Calles Agirre (2011), jokatu eta entrenatu barik daude atletismoaz aparte lesioengatik, eta aktibo daudenak dira: Lide Sudupe Ostolaza (2010), Jone Zubiaurre Unamuno (2010) eta Nerea Arriaga Fernandez (2009).

Arriaga da nagusiena eta kategoriaz igo berri da. Zubiaurre da beteranoena, zazpi urte atzera hasi zen eta hiruretatik modalitate gehien probatu dituenak da. Sudupek bi urte eskas daramatza eta Euskadiko txapelketako brontzezko domina lortu du jada, Gipuzkoa ordezkatzuz. **Soraluze txikia izan arren, kirol eskaintza nahiko zabala dauka.**

Nolatan ailegatu zarete Elgoibarko atletismo taldera?

Lide Sudupe: Lagunen esperientziak entzunda eta herrian ez zegoelako atentzioa deitzen zidan kiroltik.

Nerea Arriaga: Nik lagunekin komentatu nuen, baina bik probatu genuen eta nik bakarrik jarraitu dut azkenean.

Jone Zubiaurre: Ni izan nintzen lehena etortzen. Gurasoek proposatutako kiroleetatik haxe aukeratu nuen eta gaur arte.

Orain lagunekin hobe, ezta?

Noski! Txiki-txikia nintzela etorri nintzen eta, gaizki ez, baina nahiago kuadrillakoren batekin etorri izan banintz.

L.S.: Bai, ezagunak izanda errazagoa da besteei zabaltzea eta lagun gehiago egitea.

Daukazuen oroitzapen politena?

Ba justu taldean lehiatzen gareneko jardunaldiak.

Atletismoa nahiko indibiduala da eta batera dihardugun egun horiek politak izateaz gain, askotariko modalitatetan lehiatzeko aukera eskaintzen dute (hesi-probak, jauziak).

J.Z.: Pena infantil mailara arte bakarrik antolatzen direla.

Besterik etorriko da baina...

Bueno, orain gogoz espero dugu pista estaliko modalitatea, Nereak jada hasi duena.

N.A.: Bai eta, lasterketa hauetan oraindik urduri samar nabilen arren, nire modalitate gustukoena dela uste dut, krosa ez bezala... (barre)

Aukeran pista mendia baino beraz.

J.Z.: Ni Gipuzkoako krosean, Mintxetakoan, Arraten, Hernanin, Ormaiztegin... eta gogoratzen ez ditudan beste askotan aritu naiz, eta duda barik diot baietz. Krosak oso astunak dira, lasterketa azkar



Mintxetako pistako marketan, ezkerretik hasita: Jone Zubiaurre, Nerea Arriaga, Lide Sudupe, Irati Calles eta Naia Rodriguez. ANDER GOMEZ

eta bizi bat hobe. Guk korrika egin nahi dugu, eta mendiko aldapek eta lokatzek moteldu besterik ez digute egiten.

N.A.: Behin zapatilla eta guzti galdu nuen lokatz artean nik...

Lasterketek gain, jauzi edo jaurtiketarik praktikatzen duzue?

J.Z.: Nik luzera-jauzia.

N.A.: Guk korrika bakarrik, hesiekin entrenatu akaso.

L.S.: Iaz arte altuera-jauzia praktikatu dugu porteriaren eta pistaren arteko gunean, baina futbol zelaitxo eraiki dute eta ja... ezin.

N.A.: Oraindik gurea dela diote, baina belar artifizialez estali dute eta guk pistako lurra behar dugu behar bezala aritzeko.

Futbola hiper-maskulinizatua dago, gimnasia erritmikoa nesken disziplinatzat jotzen du gizarteak oraindik... nola igartzen duzue zuek atletismoaren mundua?

Alde horretatik ondo, orekatuta. Ez da ez *mutilena*, ez *neskena*.

L.S.: Justu Soraluzeko guztiak neskak gara, baina ni apuntatu nintzenean adibidez bi mutil zeuden etortzekotan. Kontua da Soran (futbolean) jarraitu nahi zutela eta ezin izan zituzten ordutegiak uztartu.

Gustatuko litzaizueke Soraluzek atletismo talde propioa izatea?

J.Z.: Bai, kotxearekin gora eta behera ez ibiltzeko... (barre).

Baina bestela oso gustura gaude hemen (Mintxetan).

**"KIROL INDIBIDUALA
IZAN ARREN,
MOMENTU POLITENAK
TALDEKAKO LEHIAN
BIZI IZAN DITUGU"**

L.S.: Eta herrian ez dago atletismo pista bat ipintzeko tokirik; Ezozin ez behintzat, ia futbol zelaiarendako lekurik ez dago-eta...

Baina zeozertxo praktikatuko duzue herrian, ezta?

J.Z.: Egia esan ez. Trenbidera joateko geratu izan gara behin edo behin eta Gabonetan bakarrik, ondoren Elgoibarko krosa datorrela eta...

oporraldietako alferkeria eta betekaden ostean sasoia berreskuratzeke (barre).

Beste ezer esateko baduzue...

N.A.: Herritarrak animatu nahiko genituzke taldera batzera, orain gutxi arte oso talde txikia ginen-eta.

L.S.: Bai, orain hogeitapiku taldekide gaude hamabi bat lagun batu direlako aurtan. Baina zenbat eta jende gehiago... hobe!

Blues Hotsaken 11.a

JAIALDIA AZAROAREN 18TIK 24RA EGINGO DA, ANTZOKIAN ETA KALEAN

TESTUA EGOITZ UNAMUNO

Blues Hotsak jaialdiaren 11. edizioa azaroko azken aurreko astean ospatuko da, egitarau bete-beterekin eta ohikoa den moduan, musika kontzertuek gain, literatur eta zinema emanaldiak ere izango dira. Musika kontzertuei dagokienez, egitaraua bariku iluntzean abiatuko du J.P. Bimennik Antzokian eskainiko duen emanaldiarekin. Kantaria jatorriz Burundikoa da eta soul klasikoa lantzen du, eragin afrikar eta garaikideekin.

Zapatuko egitaraua eguardian abiatuko dute Musika Eskolako ikasleek, 'Bluesaren historia erritmotik' emanaldiarekin. Iluntzean, Santiago Auseron etorriko da eta 80ko hamarkadan Radio Futura talde mitikoko kidea ohiak *Luces de la Frontera* bidaia-kantu eta -errelatoen antologia eskainiko du, gitarraz lagunduta.

Domekan, "kontzertu gastronomikoak"

Domekakoa egitarau berezia izango da. Eguerdiko hamabietan hasita, herriko kaleetan "kontzertu gastronomikoak" eskainiko dituzte tabernen kolaborazioarekin. Hala, elkarren atzetik, lau kaletan lau talderen emanaldiak izango dira: The Fake Cousins, DJ Baltza, The Wilsons Organ Trio, eta La Blues Company. Bestalde, Kontrargik, egun horretan egingo duen



Aurtengo edizioan parte hartuko duten herriko eragileen ordezkariak.

rallyan, kontzertuak barnebilduko ditu gai moduan eta, aurretik, goizean, Debegesak antolatuta, Dolmenen Ibilbideko bisita gidatu berezi bat egingo da mendigainean.

Iluntzean, blues amerikarraren ordua izango da; Chicagotik datorren Sugar Queen taldeak joko du, Michelle Denise kantariaren gidaritzapean.

Liburua eta filma

Literatura eta zinemak ere izango dute lekua jaialdian.

DOMEKAN "KONTZERTU GASTRONOMIKOAK" ESKAINIKO DITUZTE KALEAN TABERNEN KOLABORAZIOAREKIN

Hala, azaroaren 18an, Lide Hernando idazleak Izotz ura liburua aurkeztuko du KLB8n eta azaroaren 20an, *La semilla de son* filma proiektatuko dute Antzokian. Biak dute gai nagusizat musika.

Sarrera bakoitzeko zuhaitz bat

Kontzertuetarako sarrerak azaroaren 1ean ipiniko dituzte salgai Iratxo gozodendan, 12 euroko prezioan. Aurten, gainera, Errabal kultur elkarteak saldutako sarrera bakoitzeko zuhaitz bat landatzeko dirua bideratuko dio Soraluzeko Baso Biziak elkarteari.

Bestalde, antolatzaileek umeak zaintzeko debaldeko zerbitzua eskainiko dute, horretarako, 639750781 telefonora idatzi behar da, azaroaren 19a baino lehen.

Blues Hotsak

Azaroa-Navieembre 18-23
SORALUZE-GIPUZKOA 2024
www.blueshotsak.eus

IZOTZ URA

SOLASALDIA LIBURUAREN INGURUAN
LIDE HERNANDO

ASTELEHENA
LURRIS
19:00
SARRERA LIBRE

18
KALEARREN 8

20
HERRIKO ANTZOKIA

ASTEAZKENA
MIERCOLES
19:30
SARRERA LIBRE

LA SEMILLA DEL SON
FILMA



J.B. BIMENNI



22
OSTIRALA/VIERNES
20:00
SARRERA LIBRE
HERRIKO ANTZOKIA

23
LARUNBATA/SABADO
HERRIKO
ANTZOKIA

12:30 MUSIKA ESKOLA - BLUESAREN HISTORIA ERMITMOTIK

19:00
SARRERA DE
ENTRADA 10.000 Ptas

**SANTIAGO
AUSERÓN**
LUCES
DE LA
FRONTERA



THE **FAKE COUSINS**
12:00 - (Intxixu, Arrano, Bolia)
DJ. BALTZA
12:30 - (Gaztelupe)

KONTZERTU
GASTRONOMIKOAK

24
IGANDEA/DOMINGO

KONTZERTU
Argazhi Rallia

THE **WILSONS ORGAN TRIO**
13:00 - (Edurtza, Txurritxu)

DOLMEN IBILSIDEA
Bisita gidatua

LA **BLUES COMPANY**
14:00 - (Txolito)

SACO GORRI
PABLO SAN MARTIN
EDU MARAZAS
JENNIFER MURRAY
MARTIN ELIAS

19:00



SUGAR QUEEN
HERRIKO
ANTZOKIA
SARRERA LIBRE

HAUTZAINDEGIA Kontzertuetan

(sarrerik gabe 630700700) eta emakideak ez dira onartzen sartzea 10)

Saldutako sarrera bakoitzeko **BASO BIZIAK** elkarteari zuzaitz bat landutako du



Ana del Bosqueren azken bidaia

BIHAR, ZAPATUA, BARREIATUKO DITUZTE ANITA DEL BOSQUEREN ERRAUTSAK

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: DEL BOSQUE FAMILIA

Anita del Bosque Arinek hil zen arte gorde zuen Plazentzia bihotzean, nahiz eta Sorluzen 12 urtera arte bakarrik bizi izan. "Espainiatik bota zutenean (1960) nazionalitatea kendu zioten. Baina berak beti zioen ezingo ziotela bere azken bidaia debekatu, bere herrirako buelta. Hauxe izango da bere azken bidaia".

Irailean zendu zen Anita del Bosque Salamancan, 100 urterekin, eta bihar, zapatua, beteko du haren familiak bere azken nahia: bere errautsak Sorluzen barreiatzea.

Bizitza osoa markatuta

Malko artean kontatu dituzte izeba Anitaren gaineko oroitzapenak Soledad eta Rosa del Bosque ahizpek. Harro ere bai, deserrira kondenatu zuten sorluzetarrak bizirautea eta gainera, "bizimodu ona" izatea lortu baitzuen. "Zioten Dolores Ibarruri *Pasionariaren* eskumako eskua zela", diote. "Etxean ez zen gaiari buruz berba egiten. Gabonetan, ordea, aitaren lehen brindisa "ez zeudenengatik" izaten zen. Hortik aurrera, Gabon guztiak pikutara joaten ziren, tristuraren tristuraz. Bestalde, polizia sekretakoak egunero egoten ziren etxe inguruan, atarian... Gure bizitza osoa markatu zuen gertakari hark".

Frantziara eta Sobiet Batasunera

Espainiako gerrarekin hasi zen haien benetako kalbarioa.



Anita del Bosque Salamancan.

1936ko estatu kolpe frankistaren segidako bonbardaketa eta bestelako ankerkeriengatik babestu nahian, umeak atzerrira ebakutzen ari zirela jakin eta seme-alabak espedizio haietako batean bidaltzeko erabaki mingarria hartu zuten Domingo del Bosque eta Crescencia Arin senar-emazteek.

Espainiako Gobernuaren arabera, II. Errepublikatik 50.000 ume irten ziren horrela; talde handiena Euskal Herrikoek osatu zuten, 20.000-32.000 ume; gipuzkoarrak izan ziren 10.000 bat eta horietatik, proportzioan Sorluzekoak izan ziren ugarienetarikoak. Intxorta 1937 Kultura Elkartek orain arte jasotako datuen arabera, Sorluzeko 104-108 ume erbesteratu ziren. Batzuk gerora itzuli ziren arren, beste asko ez dira sekula bueltatu.

Bost seme-alabetatik lau

Del Bosque-Arin familiako bost seme-alabetatik lau joan ziren horrela. Bilbotik abiatu ziren 1937an *Habana* itsasontzian, frankistak hiria bonbardatzen ari zirela. Anita (12 urte), Rosita (10 urte), Sole (8 urte) eta Ernesto (6 urte), lau lehengusurekin batera joan ziren, nagusia zela-eta, Anita guztien arduradun eginda. "Gure aita Txominek 16 urte zituen eta 14 urtera artekoak bakarrik joan zitezkeen. Eskerrak horri ez zen joan, bestela aitona-amonak bakarrik eratuko lirateke", diote Sole eta Rosi del Bosquek.

Bilbotik Frantziara eta handik Sobiet Batasunera eramán zituzten. Sobiet Batasuneko hasierako urteetan ondo zaindu zituzten umeak. Adibidez, goi mailako ikasketak egiteko aukera izan zuten eta Anita del Bosque Ingeniaritza Agronomoa ikasi zuen.

Jaioterrian geratu zirenek, berri, irratiz izaten zuten erbesteratutako umeen berri. Justu Anitak egiten zuen hori. "Andorra irratan, Intercontinental irratan... guztiek zekiten 04:00ak inguruan berba egingo zuela Sobiet Batasunean zeuden umeen berri emateko. Jaiki eta irratan entzuten genuen zer egiten zuten, zelan bizi ziren... Gutunak idatzi zituen, baina bat bera ere ez zen iritsi".

Sobiet Batasunean, ordea, bakeak ez zuen luzaro iraun.



Ernesto, Sole eta Anita del Bosque anai-arrebak.



Ana del Bosque eta Ramon semea.



Anita Kuban, goian ezkerrean.

Anitari, 16 urte zituela, II. Mundu Gerrak Sobiet Batasunean izandako ondorioak pairatzea tokatu zitzaion. 48 kilorekin bukatu zuen.

Baina gerra hura ere bukatu zen. Laster hasi ziren Errusiako umeak aberriratzten. Rosi ahizpa hilda (1941ean) eta beste bi anai-arrebek bizitza han eginda, Anita del Bosque bakarrik itzuli zen. Madrilera joan zen 1956an. Etxea eta lana lortu zituen han, ez, ordea, paperak legeztatzea. Justu, hori eskatzean eta haurdun zela, Espainiako gobernu frankistak atxilotu eta 1960an bota egin zuten, egoera bereko beste hainbatekin batera, "asaldatzaile sobietarrak" izateaz akusatuta. Errusiara bueltatu eta han, Kubako iraultzan laguntzeko erreklutatut

zuten Che Guevarak eta Dolores Ibarrurik, eta Kubara joan zen soraluzetarra. "Hantxe lortu zuen lasaitasuna", diote bere lobek. Lana -unibertsitateko liburuen itzultzaile- eta familia, biak egin zituen. 1977ko amnistiaren ondoren, 1978an Espainiara bueltatzekotan zela, iritsi baino hilabete lehenago hil zitzaion aita. Bigarren saiakeran (80ko hamarkadan), hilabete lehenago ama hil zitzaion. "Ez dut kasualitateetan sinisten. Gurasoak sufrikario guztiarengatik hil ziren", dio Sole del Bosque.

Anita, berriz, 2001era arte bizi izan zen Kuban, alargundu eta Salamancan zuen semeak berarekin eramane zuten arte. Orain, Soraluzera itzuliko da gerrako ume izandako Anita del Bosque.

Bibliografia


- Intxorta 1937 Kultur Elkartea
- Orratz Begia liburua
- Los niños que nunca volvieron (Ana del Bosque), audioak
- Espainiako CIDA (Centro Documental de Archivos)
- Sabino Arana Fundazioa
- Basquechildren.org
- ElDiario.es
- Ninoderusia.org

Oharra: Intxorta 1937 Kultur Elkartea Batailoi Diziplinarioetan egon zirenen dokumentuak, informazioa... batzen ari da. Norbaitek baditu, jarri harremanetan Jon Koldo Iñarrarekin.

ZORION AGURRAK



Sara Muñoz Iñurrieta
Azaroaren 3an 9 urte.
Zorionak, izugarri
maitxe zaitxugu.
Etzeko danon partez
eta berezik Julenen
partez.



Ekaitz Alonso Gonzalez
Azaroak 6an 9 urte.
Zorionak maitxia!
Asko maitxe zaitxugu!
Muxu handi bat
Plaentxiko familixa
guztiaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:
Internet: Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.
Posta elektronikoa: Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Rafael Corchero Vega
Maria Asuncion Gorostidi Zubillaga
Dorotea Llorente Romera
Manuel Miguel Labeaga
Jaiotakoak
Asil Hamoui
Malen Emaldi Jauregi

ESKELAK

ESKELA



Jose Luis Larrañaga

2024ko urriaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.



Soraluze futbol taldea osatzen dugun guztien partez mila esker kluba sortzen egin zenuten lanagaitik eta lehenengo lehendakaria izateagatik.

Soraluze futbol taldea.

I. URTEURRENA

Julio Alberdi Larrañaga

2023ko irailaren 27an hil zen, 85 urte zituela.



Gure bihotzetan izango zaitugu beti.

Etxeoak.





ROSA Mª PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai
eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzen-
bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure etxebizitza komunitatean ur-kontagailu komun bakarra daukagu guztiontzat, eta presidentek ur-kontagailu indibidualak jartzeko agindu dio enpresa bati, gainerako etxe-jabeekin hitzik egin gabe. Bizilagun batzuk ez gaude ados egin duenarekin. Zer egin dezakegu?

Komunitatearen intereseko gai guztiak etxe-jabeen batzordean aztertu eta adostu behar dira. Bilerak egin beharko dira, eta deitzaileak gai-ordenan jaso beharko du proposamen hori. Hartutako erabakia balekoa izan dadin, etxe-jabe guztien 3/5ek onartu beharko dute, batzarrean egon edo ez. Gehiengo hori lortzen bada, bizilagun guztiak behartuta egongo dira hartutako erabaki hori onartzera. Etxe-jabeen bizkar hartutako erabakiengatik erantzun beharko du presidentek.

Gomendioa: batzarrera bizilagun guztiak agertzen ez badira eta ez bada legez eskatzen den gehiengo hori lortzen, aktan jaso beharko da, eta akta bilerara agertu ez diren bizilagun guztiei bidali beharko zaie. Horiek 30 eguneko epea izango dute aktan jasotakoaren gainean iritziren bat emateko. Ezer esaten ez badute, hartutako erabakiarekin gustura daudela interpretatuko da.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA

San Bartolome, 2



943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Ahoikularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Asegurak
www.kontulan.com

MENDIZABAL
okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenerik:
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbata eta
igandeak
08:30 - 13:15
Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

ELIZPE
HORTZ KLINIKA



Zure gertuko hortz klinika,
puntu puntuko teknologekin lan
egiten dugu. Cad Cam sistema
bertzazko azelerazio dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
Itxgi: 947 42 78 19
e-mail: elizpe.klinika@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



Txoko

Eguneko menuak,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitariekak,
nabakak,
pizkak,
gosiak...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88



IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreforma - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

SORALUZE
Mendiola ind. 13
Soraluze

943 556 817 - 943 75 21 38



Criado
Fruitategia Urdaitegia



- Enkarguak Whatsapppe
- Eltxerako zerbitzua
- Berrikak & delicatessen

Astelehenerik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbata: 09:00-13:00
929 958 536



HNOS. BENITO
ANZIAR
MUEBLES-ALTZARIAR

Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurritara egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47



DEBABARENA
Tripon tziak x
KLUB GASTRONOMIKOA

Erreserbatu zure bisita gidatua eta Tripontziak menua!
Azaroaren 8tik abenduaren 1era
Menua 35€

Red Square



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

HAIN GIPUZKOA
FORNMENTIA

DEBA
BARRENA

Debegesa
Debabarrena Tripon tziak

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

XXVIII. Gaztañerre azoka

2024ko azaroaren 9a, zapatua

10:00 Azokaren irekiera txalapartarekin: barazkiak, artisauak, abereak. Txistulari eta trikitilarien kalejira.

11:00 Pintxoak eta sagardo lehiaketa sanandrestarren eskutik.

11:30 Musika Eskolako Triki-Pandero Taldearen Kalejira.

13:00 Ekitaldia azokan: dantza saioa, omenaldia eta sagardo lehiaketaren sari-banaketa. Ondoren, Galtzagorri txaranga kalez kale.

15:00 Herri-babajana karpan.

17:00 Iago Magoaren emanaldia karpan.

19:00 Erromeria Obaneuke taldearekin karpan.

23:00 Erromeria Fan&Go taldearekin Gaztetxean.

Gaztañerre Kulturala

Sendabelarren ikastaroa emakumeentzat

Ekoudalatxen eskutik

Urriak 30 eta azaroak 6, eguaztenak
18:00-20:00, Gaztelekuan
(Izena eman behar da udaletxean edo online)

"Haziak. Zergatik eta nola egin zureak" liburuaren aurkezpena
Miguel Arribas "Kelo"ren eskutik
Azaroak 5, martitzena, 18:30ean KLB8n

Bertso poteoa

Unai Mendizabal eta Maialen Akizurekin
Azaroak 7, 19.00ak aldera

Talo tailerra gaztetxoentzat

Azaroak 8, barixakua, Gaztelekuan

Ludotekako Txorimalo erakusketa

Azaroaren 4tik 8ra, 18:30-20:00, erakusketa gelan

Gaztaina jana

Azaroak 11, astelehena,
Plaentxi Herri Eskolan

